

## **BALOREZKO PROPOSAMENA**

Gaur egun lana aurkitzea oso zaila da, batez ere nahi dugunaren edo dagokigun lanaren bat lortzea. Horregatik, PAMI enpresaren helburua jendeari lana eskaintzea izango da. Enpresak langile berri bat behar duenean, jendea lan elkarrizketa batera joango da, eta pertsona hori lanposturako balio duela iruditzen bazaie, deitu egingo digute eta guk emango diogu berria pertsonari.

Lehenik eta behin, enprekin kontaktuan jarriko gara eta gure zerbitzua eskainiko diegu, eta langileak behar dituztenean gurekin kontaktuan jartzeko aukera izango dute. Ondoren, lan bila dabiltzan pertsonak gurekin kontaktuan jarriko dira web orria erabiliz edo agentzian bertan, eta haiek gustuko duten esparruan lanen bat badago, pertsona horren datuak bidaliko dizkiogu enpresari, eta beraiek izango dira pertsona kontratatzearen arduradunak. Azkenik, enpresak langilea onartu ondoren, lehenengo guri jakinarazi digute eta gu izango gara aukeratutako pertsonari berria jakinaraziko diogunak.



Gure enpresak, besteek ez bezala, edozein pertsonari emango diogu lan bat edukitzeko aukera, hau da, lan horretarako gaitasuna badu lagundu egingo diogu bere datuak enpresari bidaliz. Enpresak izango direnez pertsona onartzen dutenak, guk lehen aldiz beraiekin kontaktuan jartzen garenean, baldintza bat jarriko diegu: ezingo dute pertsona baten perfila eskatu, hau da, guk bidalitako pertsonak onartu beharko dituzte. Gainera, enpresak langileren bat gaizki tratatuz gero, adibidez alde batera utziz, epaiketara eramango dugu enpresa langilearen defentsan. Langileak arazoren bat jasaten badu, enpresa arduratuko da laguntzeaz, baina, enpresak lan finkoa ematen badio, gure langilearekiko ardura enpresarena bilakatuko da. Hau da, langileen kargu egongo gara kontratu finkorik ez dutenean. Azkenik, merezi duten soldata ordainduko diegu, beti bidezkoa izan dadin.

Web orriaren bitartez, bezeroek gure zerbitzua kalifikatzeko aukera izango dute.

